


Euskal Autonomia Erkidegoan 1.247 ezkontza izan ziren 2025eko lehen hiruhilekoan, aurreko urtean baino % 16,8 gehiago

Martxoan, ezkontzek % 29,2 egin zuten gora

Eustaten datuen arabera, 2025eko lehen hiruhilekoan 1.247 ezkontza izan ziren Euskal AEn, hau da, aurreko urteko hiruhileko berean (1.068) baino % 16,8 gehiago. Bizkaian 602 ezkontza erregistratu ziren, duela urtebete baino % 15,3 gehiago; Gipuzkoan 440, % 23,9 gehiago; eta Araban 171, % 20,4 gehiago. Gainerakoak (34) Euskal AEtik kanpo erregistratu ziren —aurreko urtean baino % 30,6 gutxiago—.

Ezkontza guztietatik 1.198 sexu desberdineko pertsonen artekoak izan ziren (% 96,1) eta 49 sexu bereko pertsonen artekoak (% 3,9) —29 gizonen artekoak eta 20 emakumeen artekoak—. Bestalde, ezkontza zibilak % 98 izan ziren. Ehuneko hori % 97,8koa izan zen 2024ko hiruhileko berean.

Hilabeteen arabera, ezkontzen kopuruak gora egin zuen hiru hilabeteetan, igoerarik handiena martxoan izan zen arren, % 29,2. Urtarrilean eta otsailean ezkontzak % 6,3 eta % 7,8 igo ziren, hurrenez hurren.



Senarren % 90,4k eta emazteen % 85,4k 30 urte edo gehiago zituzten

2025eko lehen hiruhilekoan izandako 1.247 ezkontzetan, bizilekua Euskal Autonomia Erkidegoan zuten 1.214 gizon eta 1.197 emakume ezkondu ziren; gainerako ezkontideak kanpoan bizi ziren. 977 senarrentzat (% 80,5) lehen ezkontza izan zen; 222 dibortziatu eta 15 alargun berriro ezkondu ziren. Lehen aldiz ezkondu ziren emakumeen ehunekoa gizonena baino handiagoa izan zen, 985 emakume ezkondu baitziren (% 82,3); ezkonduetako dibortziatuak 200 izan ziren eta ezkonduetako alargunak 12.

Ezkontideak adinaren arabera sailkatuz gero, ikus daiteke senarren % 90,4k 30 urte edo gehiago zituela; emazteen artean, berriz, % 85,4ra jaisten da ehuneko hori. Aurreko urteko aldi berarekin alderatuta, proportzio hori jaitsi egin da, bai gizonezkoetan (2024an % 90,8), bai emakumezkoetan (2024an % 86).

Behera egin du atzerriko nazionalitatea duten ezkongaien ehunekoak

2025eko lehen hiruhilekoan, emakumezko ezkonberrien % 17k eta gizonezko ezkonberrien % 15,7k atzerriko nazionalitatea zuten. Ehuneko hori jaitsi egin da 2024ko aldi berarekin alderatuta, bai emazteen kasuan, bai senarren kasuan, aldi hartan % 20,1 eta % 16,3 izan baitziren hurrenez hurren.

Egoiliarren ezkontzak, inskripzio-lurraldearen, ezkontza-motaren, ospatzeko moduaren, aurreko egoera zibilaren, adinaren eta ezkontza-hilabetearen arabera (1). 2025/I

	2025/I		2024/IV			2024/I		
	KOP	%	KOP	%	Gehikuntza (%)	KOP	%	Gehikuntza (%)
Ezkontzak	1.247	100,0	1.672	100,0	-25,4	1.068	100,0	16,8
Araba / Álava	171	13,7	230	13,8	-25,7	142	13,3	20,4
Bizkaia	602	48,3	788	47,1	-23,6	522	48,9	15,3
Gipuzkoa	440	35,3	578	34,6	-23,9	355	33,2	23,9
Euskal AEtik kanpo	34	2,7	76	4,5	-55,3	49	4,6	-30,6
Sexu desberdineko pertsonen artean	1.198	96,1	1.598	95,6	-25,0	1.030	96,4	16,3
Kanonikoak	25	2,0	108	6,5	-76,9	24	2,2	4,2
Zibilak	1.173	94,1	1.490	89,1	-21,3	1.006	94,2	16,6
Sexu bereko pertsonen artean	49	3,9	74	4,4	-33,8	38	3,6	28,9
Gizon artean	29	2,3	37	2,2	-21,6	20	1,9	45,0
Emakume artean	20	1,6	37	2,2	-45,9	18	1,7	11,1
Senar-emazteak	1.214	100,0	1.605	100,0	-24,4	1.032	100,0	17,6
Ezkongabea	977	80,5	1.302	81,1	-25,0	826	80,0	18,3
Alargunak	15	1,2	14	0,9	7,1	19	1,8	-21,1
Dibortzuatuak	222	18,3	289	18,0	-23,2	187	18,1	18,7
< 30 urte	117	9,6	151	9,4	-22,5	95	9,2	23,2
30 - 39 urte	460	37,9	641	39,9	-28,2	384	37,2	19,8
≥ 40 urte	637	52,5	813	50,7	-21,6	553	53,6	15,2
Espainiarrak	1.024	84,3	1.377	85,8	-25,6	864	83,7	18,5
Atzerriko nazionalitatea	190	15,7	228	14,2	-16,7	168	16,3	13,1
Jaiotza-herrialdea Espainia	931	76,7	1.276	79,5	-27,0	780	75,6	19,4
Jaiotza-herrialdea beste bat	283	23,3	329	20,5	-14,0	252	24,4	12,3
Emazteak	1.197	100,0	1.615	100,0	-25,9	1.017	100,0	17,7
Ezkongabea	985	82,3	1.335	82,7	-26,2	805	79,2	22,4
Alargunak	12	1,0	9	0,6	33,3	13	1,3	-7,7
Dibortzuatuak	200	16,7	271	16,8	-26,2	199	19,6	0,5
< 30 urte	175	14,6	243	15,0	-28,0	143	14,1	22,4
30 - 39 urte	499	41,7	681	42,2	-26,7	426	41,9	17,1
≥ 40 urte	523	43,7	691	42,8	-24,3	448	44,1	16,7
Espainiarrak	994	83,0	1.367	84,6	-27,3	813	79,9	22,3
Atzerriko nazionalitatea	203	17,0	248	15,4	-18,1	204	20,1	-0,5
Jaiotza-herrialdea Espainia	843	70,4	1.179	73,0	-28,5	701	68,9	20,3
Jaiotza-herrialdea beste bat	354	29,6	436	27,0	-18,8	316	31,1	12,0
Ezkontzaren hilabetea								
Urtarrila	285	22,8				268	25,1	6,3
Otsaila	360	28,9				334	31,3	7,8
Marxoa	602	48,3				466	43,6	29,2

(1) Hiruhileko honetako eta aurreko hiruhilekoko datuak behin-behinekoak dira. Aldaketak oraingo hiruhilekoaren aldean dira.

Data 2025eko Irailaren 22a

Iturria: Eustat, Ezkontzen Estatistika

Informazio gehiago:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia kalea 1, 01010 Vitoria-Gasteiz

Prentsa-zerbitzua: servicioprensa@eustat.es Tel: 945 01 75 62